Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES

1. Sarrera **3**

2. Kontsiderazio orokorrak **4**

2.1. Eskainitako materiala 4

2.2. Testuingurua eta egin beharreko lanaren deskribapena 4

2.3. Ohargileen identifikazioa 5

3. Zehaztasunak **5**

3.1. Egokitasunari buruzko oharrik ez 6

3.2. Testuaren luzera ez da aintzat hartuko 6

3.3. Oharrak zein irizpideri dagozkion garbi azaldu 6

3.4. Transkribatze automatikoak eragindako erroreak 7

3.5. Idazlanaren kalifikazioa ez da aldatuko 7

3.6. Oharrak idazteko estiloa 7

3.7. Testutik hartutako adibideekin osatu 7

3.8. Ohar positiboak ere bai 8

4. Entrega **9**

1. SARRERA ETA XEDEA

101/24 espedienteko Betekizun Tekniko Partikularren Plegua (***Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares***) izeneko dokumentuari dagokion etiketatze-lanaren deskribapena jasotzen du dokumentu honek:

Kontratuaren xedea da C1 mailako euskara egiaztatzeko probetan egindako zuzenketen azterketa gehigarria egitea, lortutako kalifikazioaren justifikazioa zabaldu, osatu eta aberasteko, jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera.

IKERGAITU proiektuaren esparruan, justifikazio horiek erabiliko dira C1 mailarekiko testuak automatikoki kalifikatu eta ebaluatuko dituen sistema neuronal bat prestatzeko. Ohar berrien kalitateak baldintzatuko du sistemaren errendimendua. Horregatik da beharrezkoa egungo zuzenketak osatzea eta aberastea.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

2.1. Eskainitako materiala

Honako materiala eskainiko da:

- Batetik, 3200 idazlan fitxategi banatan eta pdf formatuan. Fitxategi bakoitzak euskaraz idatzitako testu bat izango du. Idazlan horiek guztiak C1 maila lortzeko idazmen probetan azterketariek idatzitakoak dira.
-
- Idazlan horiek, HABEren deialdietan aurkeztu eta ebaluatuak izan direnez, badituzte beren kalifikazioak, bai eta ebaluatzaileek idatziriko oharrak ere. Hori horrela, idazlanen oharrak eta ebaluazioari buruzko informazioa osorik eskainiko da, horrela antolatuta:
    - Kalifikazioari buruzko informazioa idazlanarekin batera eskainiko da fitxategi berean. Kalifikazio orokorrak eta ebaluaziorako erabili diren irizpide guztien kalifikazioak agertuko dira.
    - Idazlan bakoitzari buruz ebaluatzaileek idatzitako oharrak. Idazlan bakoitzak bere ohar propioak izango ditu, eta testu-fitxategi banatan (formatu editagarrian) eskainiko dira idazlan bakoitzaren oharrak. Idazlanen ohar kopurua aldakorra da, ebaluatzaileek idatzitakoen arabera. Idazlan batzuek ez dute oharrik izango, eta kasu horretan testurik gabeko fitxategia eskainiko da.

- Idazlan bakoitzak bere identifikazio-kodea izango du. Kode horren bidez asoziatuko dira idazlanak eta oharrak. Idazlanen nahiz oharren fitxategietako izenetan kode hori agertuko da, eta horrela jakingo da zein ohar dagokion zein idazlani.
- Egin beharreko lanaren jarraibideak ere eskainiko dira.

2.2. Testuingurua eta egin beharreko lanaren deskribapena

Ebaluatzaileek aurrez idatziriko oharrak osatzea eta hobetzea da zeregin nagusia. Osatze- eta hobetze-lan horretan bereziki garrantzitsua da sistematizazioa, alegia, idazlanei buruzko puntu nabarmenak jarraibide zehatz adostuen arabera jasotzea, eta oharren idazkera modu egituratuan eta homogeneoan egitea.

Idazlanak aurrez ebaluatuak izan dira, eta gehienek badituzte oharrak. Izan ere, HABEk antolatutako deialdietan C1 maila lortzeko xedez idatziriko testuak ebaluatzean, oharrak idazteko zeregina ere badute ebaluatzaileek. Ohar horien helburua azken kalifikazioa justifikatzea da, zergatia azaltzea eta argibideak ematea.

C1 mailako azterlanen ebaluatzaileek badute HABEk argitaratutako HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA (HEOC: https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculuma/eu_9716/adjuntos/HEOC-2021-DIGITALA.pdf) dokumentua. Dokumentu horretan zehazten dira euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak. Zeregin honi dagokionez, C1 mailako erabiltzaileek (***erabiltzaile gaituek***) zein idazmen gaitasun behar duten deskribatzen da HEOCen. Dokumentuan jasotako gidalerroak oinarritzat hartuko dira lan honetan ere, hau da, C1 proben ebaluaziorako baliatzen diren oinarrizko irizpideei beren horretan eutsiko zaie hemen deskribatzen den lanean.

Idazmenaren ebaluazioa bost irizpideren arabera egiten da: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta zuzentasuna. Horietan jasotako kalifikazioak batuta erabakitzen da balorazio orokorra. Oharrak idaztean ere, bost irizpide horiek osatzen dute erreferentzia-markoa.

Honako honetan planteatzen den zereginaren azken helburua ebaluatzaile automatiko bat sortzea da, lehendik giza ohargileek idatziriko oharrak sistema neuronala entrenatzeko baliatuta. Sistema automatiko horrek autoebaluaziorako aukera eskaini nahi die C1 maila gainditzeko prestatzen ari direnei. Ikaste-prozesuan sortutako edozein idazlanek C1 maila gainditzuko lukeen ala ez esatearekin batera, sistemak oharrak edo iruzkinak adieraziko dizkio ikasleari, idatzi duen testuaren alderdi onak eta akatsak nahiz gabeziak nabarmentzeko. Ikasten ari denari ohar baloratiboak eman nahi zaizkio, ikaste-prozesuan lagungarri izango zaizkiolakoan.

Hori horrela, ohiko ebaluazioan oharrek funtzio osagarria badute ere, hemen planteatzen den lanean zentralitatea hartzen dute, izan ere, sistema automatiko neuronalaren sortze-prozesua ohar horietatik ikasiz, ohar horiek entrenatzeko erabiliz, egingo baita. Hortik dator oharrak sistematikoki eta ahalik eta modurik aberatsenean idazteko beharra.

2.3. Ohargileen identifikazioa

Oharrak egiten dituztenak ID jakin batekin identifikatuko dira. Pertsona bakoitzak bere ID propioa izan behar du. Oharrez hornitutako idazlan bakoitzari ohargilearen IDa egokituko zaio.

3. ZEHAZTASUNAK

3.1. Egokitasunari buruzko oharrik ez

C1 mailako idazmen-proben egokitasunaren irizpideak gaiak, testuinguruak eta abarrek eskatzen duten erregistroarekin asmatzea eskatzen du. Hortaz, idazlanaren balorazioa estuki lotuta dago azterketan adierazitako enuntziatuarekin eta gaiarekin. Alabaina, eskuragarri dagoen materialean idazlanei buruzko gairik edo enuntziaturik ez dago. Beraz, ezinezkoa da egokitasunari buruzko oharrak taxuz idaztea.
Hori horrela, egin beharreko lanean **egokitasunari buruzko oharrak ez idaztea erabaki da**.

3.2. Testuaren luzera ez da aintzat hartuko

C1 maila lortzeko azterketen idazlanei hitz-kopuru jakinen muga ezartzen zaie, eta luzera mugatu horiek ez errespetatzeak eragina du ebaluazioan.
Honakoan planteatu den zereginak, ordea, autoebaluazioari begirako xedea du, eta ikasten ari denari ohar bidez lagundu nahi zaio, edozein dela ere idatzitako testuaren luzera. Beraz, **luzerari buruzko oharrak kendu egingo dira daudenetan, eta ez dira jarriko lehendik halakorik ez badago.**

3.3. Oharrak zein irizpideri dagozkion garbi azaldu

- Aipatu da egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta zuzentasuna direla idazmenaren ebaluazioan erabiltzen diren bost irizpideak. Horietatik egokitasuna ez da landuko zeregin honetan, azaldu denez, gaiari eta enuntziatuari buruzko erreferentziak ez baitaude jasota eskura dagoen materialean.
  Hortaz, oharrak osatzean lau izango dira erabiliko diren irizpideak: koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta zuzentasuna.
  Irizpide horien aipamen esplizitua egingo da oharrak idaztean, jakiteko zer irizpideri dagokion ohar bakoitza. Gainera, oharren ordena zaintzeko, komeni da oharrak irizpideka sailkatzea.
  Adibidez:
  "Akats ortografiko asko egin ditu: erakuslehio, heldu zahie,.." oharrari aurretik irizpidearen aipamena jarriko zaio:
  "Zuzentasunari dagokionez, akats ortografiko asko egin ditu: erakuslehio, heldu zahie,."
  Eta zuzentasunari buruzko ohar gehiago balitu idazlan horrek, denak batera jartzea litzateke egokiena.

3.4. Idazlanaren kalifikazioa ez da aldatuko

- Gerta liteke ohargilea jatorrizko kalifikazioarekin bat ez etortzea. Oharrak egiteak berez dakar errebisioa eta epaia: GAI/EZ GAI den, eta puntuazioa.
  Nolanahi dela ere, **lan honen helburuetan ez da sartzen kalifikazioa berrikustea; hortaz, ez da aldatuko gaitasunari buruzko balorazioa, ez irizpideei jarritako puntuak.**

3.5. Oharrak idazteko estiloa

- Azterketak ebaluatzen direneko estiloa erabiliko da oraingo lan honetan ere. Hori da oinarria.
  Sistema neuronal batek horietatik ikasiko duenez, garrantzitsua da ohar argi, ulergarri eta adierazgarriak idaztea.

3.6. Testutik hartutako adibideekin osatu

Azalpen argiak ematearekin batera, ahal denean, azalpen horiek adibideekin osatzea komeni da. Adibideak testutik hartuko dira, eta komatxoekin markatzea da egokiena, oharraren testutik ondo bereizteko.

3.7. Ohar positiboak ere bai

Itxura denez, antzemandako gabeziak eta eginiko erroreak nabarmentzen dira gehienbat oharretan. Kalifikazio baxua justifikatzeko idatzi ohi dira horrelakoak. GAI kalifikazioa jasotzen duten idazlanek urriago dituzte oharrak, edo, ez gutxitan, ez dute batere oharrik izaten.
Ikasleari autoebaluazioan lagundu nahi bazaio, ordea, gabeziak erakustearekin batera, beharrezkoa da ondo egindakoak ere nabarmentzea. Hori dela eta, zeregin honetan ohar positiboak modu sistematikoan idaztea eskatzen da.

4. ENTREGA

- 2.1 puntuan adierazi da zer material entregatuko den lan hau egiteko, eta zer formatu eta ezaugarri izango dituen entregatutako material horrek. Orain, puntu honetan, landutako materiala nola bueltatuko den azalduko da.
- Azterketariek idatzitako idazlanak ez dira aldatuko. Idazlan horiek aurrez lortutako kalifikazioak ere ez dira aldatuko. Beraz, idazlanen fitxategiak beren horretan utzi behar dira.
- Oharren testu-fitxategiak dira aldatu eta aberastu behar direnak. Eskainitako formatu berean itzuliko da landutako materiala. Bi bereizgarri izango ditu itzulitako materialak hasieran emandakoarekin alderatuta:
  - Oharren fitxategiek, behin osatuta eta aberastuta, “osatua” atzizkia izango dute beren izenetan, jatorrizkoetatik bereizteko.
  - Oharren dokumentu horietan, lehen lerroan, ohargilearen identifikazioa jarriko da.